

**BESTE EMAKUME BAT ERAILA EUSKAL HERRIAN!**  
**NATALIA BALLYK BORTIZKI ERAILA IZAN DA HUARTEN**

ASKI DA! *Nazkatzuak gaude!*

Beste erailketa matxista baten berri izan genuen atzo, **bosgarrena dugu aurten Euskal Herrian: gogoan zaituztegu!!!** 38 urteko emakumea erail berri du bere senarrak Huarten (Nafarroa). Larunbatean aurkitu zuten emakumea, Uharteko bere etxearen. Haren senarrak deitu zuen larrialdi zerbitzuetara, emakumea “dutxan erori” zelakoan, baina espetxeratua izan da hilketa delitua leporatuta. Jakina zen gizonak maiz ematen zizkiola tratu txarrak emazteari. Izan ere, **Uharteko udaltzainek bitan atxilotu izan dute delitu horrengatik.** Bainak horrek ez du ekidin Nataliarene erailketa, ez du bermatu egoerak eskatzen zuen behar besteko interbentzioa.

**Emakumeak ez zuen salaketa jarri izan nahi, eta beraz, ez ziren indarkeria sexistaren aurka dauden protokolo eta bitarteko publikoak jarri haren mesedetan. Honek indarkeriaren aurkako neurrien hutsuneak azaleratzen ditu.** Galdu beharko genioke gure buruari: zergatik ez zuen salatu Nataliak? Salaketaren osteko prozesua bortitzoa izan ohi da emakumeentzat, ezaguna baita epaitegietan nagusi den matxismoa. Gainera, zaugarritasun egoera horri aurre egiteko babes soziala ezinbestekoa da. **Gure jendartea zeharkatzen duen klase egitura edota xenofobiak, emakume askok indarkeria matxistarekiko duten babesgabetasuna handitzen dute.** Emaitza, batzuetan, larriena da. Zelako errekursoak izan zituen Nataliak bere senar eta (senarraren konplizea zen) amaginarrebaren etxetik joateko? Jatorri atzerritarra izateak eta prekarietate egoerak ez zizkion gauzak erraztu.

**Bestetik, komunikabide batzuek egindako irakurketa salatu nahi dugu,** emakumearen ustezko alkoholismoa eta ohiturak aipatuz. **Honek erakusten du, beste behin erasoen ardura biktimarengan jartzen dela, eta jatorri atzerritarra duten emakumeek bizi duten estigmatizazioa.** Hainbat politikarik agertutako zalantzek, bestalde, ez dute bat ere laguntzen erantzun soziala bideratzeko, ezta fokua dagokion lekuaren jartzen ere.

Mugimendu Feministak lan kolosalak egin du indarkeria matxistari hitzak jartzen eta jendartea sentsibilizatzen. Hala zabaldu dugu **emakumeon aurkako indarkeriak ez du mugarik, bizi garen sistema kapitalista patriarkalaren funtzionamenduaren ezinbesteko tresna delako,** eredu honek sortzen dituen pertsonen arteko botere harremanak betikotzeko tresna. Garrantzitsua da ulertzeari indarkeria matxista, bestelako biolentzia ardatz batzuekin elkarlotzen dela, arrazismoa edo klasea, kasu.

Ez dira modu isolatuan eta bakartuan ematen diren erasoak; gure sistemaren muinean erreprroduzitzen den indarkeria da: kultura aparatuaren, komunikabideetan, estatuan, lan merkatuan, familian edota hezkuntza sisteman. Honen aurrean, agente sozial, politiko eta instituzional guztien ardura pertsonal eta kolektiboa ezinbestekoa da. Apustu ausartak eta neurri sakonak beharrezkoak dira. Garaia da hitzetatik praktikara pasatzeko.

Emakumeen Mundu Martxatik gogor salatzen dugu Huarteko erailketa eta **abuztuaren 29 eta 30ean egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu!** Honekin batera autodefentsa feministarako deia egiten dugu, gure bizitzak direlako jokoan daudenak. Feministok erantzuteko prest gaude! Martxan jarraituko dugu, elkarrekin, borrokan denak aske izan arte!!!!

EHko EMAKUME MUNDU MARTXAREN PLATAFORMA



2018ko abuztuaren 29an, Euskal Herrian

## **¡OTRO ASESINATO POR VIOLENCIA MACHISTA EN EUSKAL HERRIA!**

### **¡NATALIA BALLYK BRUTALMENTE ASESINADA EN HUARTE!**

*¡BASTA! ¡Estamos hartas!*

Ayer conocimos un nuevo caso de asesinato machista, **ya son cinco mujeres este año: ¡estáis en nuestra memoria!** Natalia Ballyk ha sido asesinada por su marido en Huarte (Nafarroa). Encontraron a la mujer en su casa de Huarte el sábado. Llamó su marido a urgencias diciendo que ella “se había caído en la ducha”, pero ha sido encarcelado por homicidio. Era sabido que este hombre maltrataba a su mujer. De hecho, **había sido detenido en dos ocasiones por la policía municipal de Huarte. Pero esto no evitó el asesinato de Natalia, no garantizó la necesaria intervención que requería la situación.**

**La mujer no quiso interponer denuncia, y por tanto, no se pusieron a su disposición los protocolos y los recursos públicos contra la violencia machista. Esto evidencia los vacíos existentes en las medidas contra la violencia.** Deberíamos preguntarnos: ¿Por qué no quiso denunciar Natalia? El proceso que se activa tras la denuncia es violento para muchas mujeres, pues es conocido el machismo que existe en los juzgados. Además, para hacerle frente a esa situación de vulnerabilidad es vital la protección social. **La estructura de clase o la xenofobia que atraviesa nuestra sociedad aumenta la indefensión de muchas mujeres.** El resultado, a veces, es el más grave. ¿Qué tipo de recursos tuvo Natalia para irse de la casa de su marido y su suegra (cómplice de éste)? Tener una procedencia extranjera y la precariedad no le facilitó las cosas.

Por otra parte, **queremos denunciar la lectura de algunos medios de comunicación**, que mencionan un supuesto alcoholismo y costumbres de ella. Esto demuestra, que una vez **más se responsabiliza a la víctima, y la estigmatización que viven las mujeres de procedencia extranjera**. Las dudas expuestas por algún político tampoco ayudan a canalizar la respuesta social y poner el foco donde corresponde.

El Movimiento Feminista ha hecho un trabajo colosal nombrando la violencia machista y sensibilizando a la sociedad. Así, hemos alertado de que la violencia contra las mujeres no tiene límite porque es una herramienta fundamental del sistema capitalista patriarcal, un recurso para mantener las relaciones de sumisión y de poder que ha creado dicho sistema. Es importante entender que esta violencia se cruza también con otros ejes de violencia, como en este caso el del racismo o la clase.

Nos son casos aislados, es una violencia que se reproduce en la médula de nuestro sistema: en el aparato cultural, en los medios de comunicación, en el estado, en el mercado laboral, en la familia o en el sistema de educación. Ante esto es necesaria la responsabilidad personal y colectiva de cada agente social, político e institucional. Son necesarias medidas integrales y apuestas valientes. Ya es hora de pasar de las palabras a la acción.

Desde la Marcha Mundial de las Mujeres denunciamos duramente el asesinato de Huarte y **llamamos a las movilizaciones que se harán en todo Euskal Herria el 29 y 30 de agosto**. Además, **llamamos a la autodefensa feminista**, porque son nuestras vidas las que están en juego. ¡Las feministas estamos preparadas para responder! Seguiremos en marcha, en lucha, juntas, ¡¡¡Hasta que todas seamos libres!!!

A 29 de agosto 2018,



PLATAFORMA DE LA MARCHA MUNDIAL DE LAS MUJERES DE EH